

“R. M. AZKUE eta P. BROUSSAIN-en arteko ELKARRIDAZKETA”

Iker-4

Bilbon, 1987-III-8

P. Xarritton

Bizkaiko Ahaldundiaren laguntzari esker Euskaltzaindiak argitaratzen duela-rik bere IKER saileko 4. liburua, R. M. Azkue eta P. Broussain-en arteko elkarridazketa, nahi dizuet, Jaun Andre agurgarriak, gutundegi horren historia laburra aipatu.

Badu ja 9-10 bat urte, Kanada-tik itzuli berri ginelarik, emaztea eta biok, Hazparneko gazte multzo batek, Hazparnen irakasle den Jean Louis Davant euskaltzainak bultzaturik, gaizki ez banabil, nahi izan zuen hazpandar euskaltzale handi baten, Piarres Broussain zenaren oroimena bere sorterrian berritu. Orduan Euskaltzaindiak gizon horri eskaini zion omenaldiaren karietara gaur gutartean dugun Jenofa Broussain-Le Roy andereak salatu zigun, Lehuntze Nagile-ko bere etxeko selauruan bazeuzkala bizpalau kutxa, aita zenaren paperez beterik.

Horra nola hasi nintzen 50 urteetako errauspean zeuden paper zaharren eskustatzen, miatzen eta sailkatzen. Jean Haritschelhar-ek eta Janpiarre Larremendy-k Hazparneko omenaldian egin zituzten mintzaldietan aurki daitezke aurkiberri horren lehen emaitzak (**Euskera**, 1978-1 (XXIII-2.aldia), 169-174 & 175-179). Nihonek ere artikuluxka bat argitaratu nuen orduan, lehen hurbilketa bezala; ikus **Euskera** 1979-1 (XXIV-2.aldia), “Piarres Broussain-en paperak”, 167-170.

Lehuntze-ko paper eta izkribuen osatzen saiatu nintzen gero, bai Hazparneko Herriko-Etxean, bai Euskaltzaindiko artxibategian, bai Baionako Euskal Erakustegian, eta laster konturatu nintzen banuela eskutan Piarres Broussain bera beraurkitzeko bidea. Horra zergatik Jean Haritschelhar-ekin prestatu nuen Bordelen “Pierre Broussain, sa contribution aux études basques”, Paris CNRS, 1985, deritzan ikerlana.

Broussain-en bidetik ordea aurkitzen dugu haren inguramen aberatsa, hots XX. mende honen lehen laurdeneko euskal mundu osoa: Arana Goiri eta Campion, Urquijo eta Elorza, Aranzadi Estanislao eta Koldo Eleizalde hegoalde-rik; Hiriart-Urruty eta Arbelbide, Lacombe eta Etchepare, Constantin eta Saint-Jayme, iparralde-rik eta oroz gainetik, bi eskualdeak hartzen dituela, 1897an Donibane Lohitzuneko Euskal Pestetan ezagutuz geroz hil arteraino osoki gogoz eta bihoztez kide izanen duen Resurreccion Maria de Azkue, Lekeitio-ko semea.

Diodanaren lekuko, hor ditugu aipatu ditugun presuna horien guzien gutunak. Zenbait argitaratuak dira jadanik, hala nola “Sendoa” argialetxeak argitaratu

duen Sabino Arana Goiri-ren obraren 2. argitalpenean agertu direnak, "Maiatz" aldizkariaren zenbaki batean agertuak (1982-2) edo "Bulletin du Musée Basque" delakoak agertuak (1982-4; 1985-2, 3, 4; 1986-1). Beste zenbait oraino argitaratuko ditugu, Jainkoak nahi badu. Baina gure ustez aberatsenak gaurko hauek dira, erran nahi baita, 1897tik 1920 arte, Azkuek eta Broussain-ek kurutzatu zituzten eskutitzak. Orotara 165 badira eta eratziki dizkiegu beste bospasei, Broussain-en etxen Lacombe eskuratu zituenak, haien jabea hil zen egunetan. Lacomben paperetan aurkitu ditugu eta hemen ezarri Euskaltzaindiaren historiari buruz duten interesagatik. Ezen aita Villasantek erran digun bezala, Euskaltzaindiaren aurrehistoria aurki dezakegu elkarridazketa honetan.

Baina ez hori bakarrik; Azkue-ren lan nagusien, haren hiztegiaren, haren kantutegiaren historia ere asko argitzen digu, gure ustez. Oroz gainetik euskararen batasunaren xede lehena ikertu nahiko duenak Broussain-en eskutitzetara jo beharko du, nahi-ala-ez.

Alta bada, Azkuek eta Broussain-ek elgarri idatzitako guziak ez dira hemen agertzen. Bat edo beste oraino nonbait ager daiteke, baina oroz gainetik erdiak edo gehiago sekulakotz galdu dira.

Azkue-ren lehenak, Broussain oraino Parisen ikasle zelarik harat igorriak, Broussain-ek berak galdu zituen. Broussain-enak aldiz Azkuek Tours-en edo Kolonian zelarik ukan zituenak ez zituzkeen Azkuek berak begiratu. Geroago, 1912tik hara, eta bereziki 1914eko gerlaren ondorioz, bi adiskideen elkarridazketa eteten bezala bada ere, izigarriko suarekin abiatzen da berriz azken hiru urteetan: Hazparnetik etorritako 15 eskutitz badira Euskaltzaindiaren artxiboan, baina hauen erantzunetarik 4 baizik ez ditugu aurkitu Broussain-en kuxetan.

Dena dela, ez dugu uste gure ikerketa osoki alferra eta agorra izan denik: gutienetik bi euskalzale handiren begitartea eta botza bera (I) berraurkitu ditugu. Eta gure euskal kulturaren historiak baititu oraino eremu asko aztergai, agian gure mende honek eremanen ditu aintzina bilketa lanak, ondoko belaunaldiak egin dezan gero bildutako bazkaren ausnarketa.

(I) Broussain-en paperetan ikusirik, 1913an, Vienna-ko Akademiako Rudolf Trebitsch jakintsuna Euskal Herrira etorri zela, euskal soinuak fonografa bidez biltzeko, eta Broussain eta Azkue eta beste euskaldun askoren botzak grabatu zituela, grabaketa horien kopiak Vienna-ko Akademian eskuratu ahal izan dira eta gaurregun Euskaltzaindian daude entzungai.

“RESURRECCION MARIA DE AZKUE ETA PIERRE BROUSSAIN-EN ARTEKO ELKARRIDAZKETA” LIBURUAREN AURKEZPENA

Bilbon, 1987ko Apirilak 8

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

J.M. Makua Bizkaiko Diputadu Nagusia
T. Uribeetxeberria, Kultur Diputadu eta Arduraduna

Jaun-andreak, egunon denoi!

Hasteko, eskerrak eman beharrea naiz, eta gogotik ematen dizkiot, Bizkaiko Foru Diputazio txit Gorenari Euskaltzaindiaren izenean. Hura lagun izan dugulako atera ahal izan baita gaur aurkezten dugun liburu berri hau, “Iker” sortaren 4. zenbakia daramana. Zein da beronen edukina? Azkue, Euskaltzaindiaren sortzaile eta lehen Zuzendariak, eta Pierre Broussain Iparraldeko jaun midiku, politikari eta lehen orduko euskaltzainak elkarri egindako eskutitzen bilduma. Eskutitzok joan-mendeko azken urteetan hasi eta mende honetako lehen hogeikadan barna eginak dira. Guztira, Azkuerenak 85, Broussain-enak 80. Badira eranskin batzuk ere.

Baina liburuan ez da ematen eskutitzon testua huts-hutsik. Edizioaren prestatzaile izan den Pierre Charriton jaunak oharpen ugariak jarri ditu eskutitzen azpian, eta horietan xehetasun argigarri asko datoz idazkiotan aipatzen diren pertsona, gertaera eta arazoei buruz. Eskerrak, bada, berari ere. Pierre Charriton jauna aspaldidanik ari da bere herritar prestu honen aldeko lanean. Pixka bat ahantzirik zegoen Broussain-en irudia eta bai gizon honek euskararen alde bultzatu zituen arrangura, asmo eta ideiak ere, eta hemen ditugu, bai harenak eta bai Azkuerenak, argitan jarriak.

Guзtiok dakigunez, Azkuek 1905. urtean, eta Bizkaiko Diputazio honen beronen laguntzaz, hain zuzen, argitara zuen bere Hiztegi handia. Hitzaurrean esaten duenez, 15 urte eralgi behar izan zituen Hiztegi hori prestatzen. Askotan Iparraldera txangoak egin behar izaten zituen, hango euskara, hango euskalkiak, euskal liburuak, euskaltzaleak etab. hurbildik ezagutzeko. Eta txango horietako batean egin zuen Broussain jaunaren ezagutza. Broussain jauna, adinez, Azkue baino bospasei urte zaharragoa zen. Eta adiskidetasun hura, erne zen puntutik, ez zen gehiago zimeldu edo hil, ez horixe! Biek zuten amodio berbera, kezka berbera eta asmo berbera, hots: euskara, Euskalerrriaren ondare hau, nola bizirik

atera, nola jausialditik altxa, nola sendotu eta bizkortu. Arazo honetan pentsamoldea berdin xamarra dute biek. Honekin esana dago iturri paregabea direla eskutitz hauek garai hartako euskal estudioen egoera aztertzeko; izan ere, euskalari eta euskaltzale askoren izenak eta lanak eta aburuak aipatzen dira eskutitzotan; baita ere ematen dira urte haietan gertatu ziren gertaera askoren berriak.

Charritton jauna mintzatuko zaigu berehala xehekiago eta hedatukiago. Nik, berriz, punturen bat edo beste ukituko dut xoilki. Azkenaldiko eskutitzetan, Akademiaren amets zaharra egia bihurturik ikusten duenean, Broussain honela mintzatzen zaio bere lagunari: "Oroitzen zara, orain dela hogeiren bat urte, Donibane Lohitzuneko euskal festetan, lehenbiziko aldiz elkar ezagutu genuenean, nola hitz egin genuen Akademia baten premiaz? Horra, azkenik, gure ametsa burutua!" (24-XI-1918, 308 orrialdean).

Baina pixka bat geroago Urquijo jaunak asmo honi buruz duen eszeptizismoaz mintzo da Broussain (10-III-1919, 315 orr.). Urquijok badaki, nunbait, euskaldunok kaska-gogorrek garella eta euskarari buruzko arazoetan bakoitza bere eritziei itsu-itsuan eta zurrunki lotzen dela. Horregatik zaila ikusten omen du Urquijok Akademia horren sortzea eta martxan jartzea, eta martxan jartzen baldin bada ere, beldur da ez ote den hasi eta berehala desegingo, euskaltzainak eriztietan bat ez etorritz. Horregatik hasieran kontu handia ipini behar omen da, dimisioak ez ontzat eman, etab.

Broussain-ek leku askotan aipatzen du zein diren bere ustez euskarak bizirik irteteko egin behar dituen urratsak. Horra, beste askoren artean, 1919ko Martxoaren 10eko eskutitzean dioena (315 orr.). Euskarak, bada, irauteko, urrats hauek egin behar ditu: 1) *Patois* egoeratik zibilizazio-hizkuntza izatera aldatu; beraz, literatura batean oinarriturik den hizkuntza izatera heldu; 2) Horretarako, euskararen batasuna noraezeko baldintzatatzat jotzen du Broussain-ek; 3) Mintzaira batu hori euskara ongi ezagutzen dutenen talde batek beharko du moldatu, talde horren barruan euskalki guztietako ordezkariak direlarik; 4) Euskara batu hori eskoletan beharko da irakatsi, eta belaunaldi bat edo biren buruan burgesia eta apezteriarren mintzaira bakar bilakatuko da. Broussainek uste du, gainera, urrats horiek ematen ez baditu, euskara hil egingo dela, eta euskararen batasun hori egitea dela Akademia berriaren obra handia.

Broussain-ek Azkuerengana sentitzen duen atxikimenduaz lekukotasun asko dago karta hauetan. Hara zer esaten dion 1898ko Azaroaren 15ean (200 orr.): "Urruntasuna gorabehera, nere bihotza beti leial dago hura irabazten asmatu dutenen alderakotzat". Eta beste toki batean oraino (1904, Uztailak 22, 281 orr.): "Zu zaitut adiskide segurua eta leiala, zeinengan jarri baitut neure fidantzia osoa". Bion arteko barnekidetasun hau hain da handia, non askotan bizkaieraz idazten baitio Broussainek bere lagunari.

Jaun-Andreak: Zinez uste dut gaur kaleratzen den liburu hau iturri benetan aberatsa eta balioetsua dela mende honen hasierako euskal estudioen egoera aztertzeko. Gehiago esango nuke: Euskaltzaindiaren historiaurrea edo preshistoria dugula hemen.

Baina arbola orok du bere itzala eta Broussain-ek bazuen, dirudienez, alderdi argal bat: etimologiak asmatzeko eta hitz berriak sortzeko grina. Horretaz ere

bada adibiderik franko gutun hauetan. Eta Azkuek, Broussain hil ondoren, honen lan bat atera zuen hitz berrien gai honi buruz **Euskera**-n 1930ean. Egia esan, ez dut uste haren hitz berriok arrakasta handirik izan duten.

* * *

Señoras, Señores:

Hace cosa de nueve años, o sea, en 1978, la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia celebró un acto como recuerdo de Pierre Broussain en la localidad labortana de Hasparren —en vasco Hazparne—, de donde aquél era natural. A la verdad, aquel homenaje fue un tanto atípico, pues la Academia no acostumbra celebrar tales actos fuera de ciertas fechas convencionales, como Centenarios, etc. Pero creyó que esta vez debía hacer una excepción por tratarse de un gran colaborador de D.R. M.^a de Azkue, de un académico de la primera hora, etc. En realidad la iniciativa partió de un grupo de jóvenes del mismo Hasparren, que querían recuperar de este modo la figura de este hijo ilustre, a quien veían injustamente olvidado.

Y fue entonces cuando ocurrió lo que nadie esperaba. La hija de Pierre Broussain, Jenofa, que nos honra hoy con su presencia en este acto, recordó, con motivo del homenaje tributado a su padre, que ella guardaba una maleta suya. No sabía a ciencia cierta qué es lo que había en ella; creo además que la tal maleta se hallaba un tanto arrinconada en un desván, pero de todas formas ella la guardó fielmente por ser cosa de su padre, que había muerto repentinamente en abril de 1920 en la estación de Orthez.

Se procedió, pues, a abrir la maleta. La sorpresa no fue pequeña. Broussain guardaba en ella la correspondencia epistolar que había mantenido durante muchos años con casi todos los que en aquella época —fines del s. XIX y principios del XX— se preocupaban por la suerte del euskara, o sea, por asegurar su futuro, tanto en Iparralde como en Hegoalde. Había allí cartas de Sabino Arana, de Azkue, de Campión y de tantos otros. En dichas cartas se habla de muchas cosas, como sucede siempre en este género de literatura, pero hay una constante que aparece a lo largo de toda la correspondencia, a saber, la preocupación por el euskara, por lo que se debe hacer para asegurar el futuro de esta lengua.

Entre las personas con las que se carteo Broussain por este motivo del salvamento del euskara, sobresale con mucho Azkue, tanto por el número de las cartas cruzadas entre ambos, como por su extensión y por el grado de penetración e identificación que entre los dos interlocutores se advierte. No hay que olvidar que Azkue publicó su gran Diccionario en 1905. En el prólogo del mismo dice que esta obra le ha costado 15 años de trabajo. Durante este tiempo Azkue realizó numerosos viajes a Iparralde para conocer sobre el terreno el euskara de allí, buscar fuentes, colaboradores, etc. Fue entonces cuando trabó conocimiento y amistad con Pierre Broussain.

Como botón de muestra de la intimidad que llegó a crearse entre ambos citaremos un solo texto. En una de sus primeras cartas (15 de noviembre de 1898, p. 200) Broussain dice a Azkue: "A pesar de la distancia, mi corazón

permanece siempre fiel a los que han sabido ganarlo". Así fue, en efecto. Broussain se desvivía por ayudar a Azkue en su empeño, por ponerle en relación con posibles colaboradores, le llevaba a su casa, etc. Testigo de todo esto es también la señora Jenofa, que tenemos hoy aquí.

Esta correspondencia cruzada entre Azkue y Broussain, guardada básicamente en la citada maleta, y completada con cartas que se conservaban en la primitiva sede de la Academia de la calle Ribera —bastantes de las cuales las había dado a conocer anteriormente el académico D. Alfonso Irigoyen en la revista **Euskera**, órgano de la Academia, el año de 1957—, esta correspondencia, decimos, es la que tenemos el gusto de presentar hoy al público, debidamente recogida y ordenada y además enriquecida y avalorada con numerosas notas por el académico señor Pierre Charriton, natural también de Hasparren. Pierre Charriton ha consagrado sus desvelos a iluminar la figura de Pierre Broussain, su biografía, su personalidad, sus ideas y proyectos, sobre todo en lo concerniente a la lengua vasca. Broussain era médico de profesión, intervino también en política, fue alcalde de Hasparren, etc.

Como dato curioso diré que en estas cartas se habla repetidamente de los Hermanos de Ploërmel, religiosos bretones que enseñaban a los niños bretones la doctrina cristiana y la lengua bretona. Tanto Broussain como Azkue piensan que no vendrían mal estos religiosos en el País Vasco para que hicieran aquí lo mismo con el euskara; pero para eso hacía falta buscar vocaciones nativas, y Azkue no echó en saco roto el negocio, pues en una carta comunica que tiene ya cuatro novicios potenciales para dicha Congregación, dispuestos a hacer el Noviciado en San Juan de Pie de Puerto (Donibane Garazi); los cuatro eran vizcaínos (Cf. carta de Broussain, 23-XII-1898, p. 203). No sé en qué paró la cosa. Seguramente que en agua de borrajas, pues el Gobierno francés a primeros de siglo echó de Francia a todas las congregaciones que se dedicaban a la enseñanza. Pero de todas formas, ahí queda esta anécdota conmovedora, que revela la preocupación que sentían ambos —Azkue y Broussain— por salvaguardar de algún modo este legado de la lengua del país.

Llevado de la confianza que siente con su amigo —el cual se llamaba Pierre—, Azkue le dice a veces: "No sea Vd. Pierre Loti —es decir, dormilón—". Pero también el otro, cuando Azkue tarda en contestar, replica: "Ahora le digo yo a Vd.: No sea Resurrección Loti", etc.

Pero anécdotas aparte, ¿cuál es, por decirlo de algún modo, el meollo de esta correspondencia que se publica hoy como volumen IV de la colección "Iker" de la Real Academia de la Lengua Vasca? Sin miedo a equivocarme ni a exagerar, yo diría que en estas cartas se contiene la prehistoria de la Real Academia de la Lengua Vasca, de sus planes y proyectos; ellas son también una fuente de primer orden para una biografía de Azkue, obra que la Academia deberá acometer algún día, si quiere pagar de algún modo la deuda que tiene contraída con su egregio fundador.

Algunas veces se ha dicho y escrito por ahí que Euskaltzaindia se ha desviado de sus auténticos objetivos iniciales, etc. Pues bien, basta leer esta correspondencia para convencerse de que la Academia se ha mantenido conmovedoramente fiel a los proyectos e ideales que aparecen en estos dos grandes

protagonistas, que son Azkue y Broussain. Ambos a dos acarician la idea de que es de todo punto necesario fundar una Academia de la Lengua Vasca, que abarque toda la extensión del país que habla euskera, y se preocupe de regular los problemas de esta lengua. Y como cosa del todo punto indispensable aparece también en estas cartas la cuestión de la unificación del euskara. Yo diría que fue Broussain el que inoculó esta idea en Azkue, más bien que al contrario. Cuando se creó la Academia, en sus Estatutos fundacionales aparece ya la encomienda de realizar esta unificación. Y cuando en una de las primeras sesiones se planteó el problema, los académicos decidieron que se formara una comisión y que ésta preparara un informe o dictamen sobre el tema. La sesión —o mejor, Azkue— con buen ojo escogió a dos académicos con puntos de vista un tanto antagónicos: Campión, que era más bien reacio al proyecto, y Broussain, que era totalmente favorable al mismo (y Azkue bien lo sabía). Con el fin de cumplimentar la orden de la Academia, ambos se reunieron en un hotel de Donostia, confirieron la cosa entre sí, y se ve que Broussain ganó para la causa a Campión. El Informe delata el estilo inconfundible de Campión, pero las ideas son las del otro, compartidas ya ahora por el gran polígrafo navarro.

El dicho Informe fue leído, en efecto, en la sesión por Campión y ampliamente alabado y aprobado por los académicos. Al día siguiente, Broussain moría repentinamente en la estación de Orthez (27-IV-1920). Pero podemos decir que había cumplido su misión: la de legar a la naciente Academia el encargo de realizar la unificación de la lengua para usos literarios como premisa ineludible para la salvación de esta lengua.

El volumen ha sido publicado gracias a la ayuda de la Excma. Diputación Foral de Vizcaya. Esta, que publicó asimismo en su día el gran Diccionario de Azkue, ha agregado ahora este nuevo gesto, que le honra, patrocinando la publicación de estas cartas que constituyen un notable testimonio de los afanes e inquietudes de dos ínclitos hijos de Euskal-Herria por la causa del euskara.

IKER 4:

“RESURRECCION M.^a DE AZKUE ETA PIERRE BROUSSAIN- EN ARTEKO ELKARRIDAZKETAREN” AURKEZPENA

Bizkaiko Foru Diputazioa, 1987-IV-8

J. L. Lizundia

Idazkari-ordea

— Bildu dira, mahaipuruan: Jose M.^a Makua Diputatu Nagusia, Luis Villasante Euskaltzainburua, Tomas Uribeetxebarria Kultur Diputatuak, Piarres Charritton eta Jenofa le Roy, P. Broussainen alaba. Baita ere: E. Erkiaga eta J. San Martin euskaltzainak; A. Akesolo, J. A. Arana, R. Badiola, J. Berrojalbiz, J. Bilbao, X. Gereño, J. L. Goikoetxea, J. L. Lizundia, J. Oleaga, K. Rotaetxe, P. Uribarren, X. Videgain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak; J. Iturbe, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektore-ordea; A. Muniategi, Herri Literatura batzordekidea; N. Agirre, Oinarrizko Euskara batzordekidea; G. Aurrekoetxea, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren lankidea; R. M.^a Arza, Euskaltzaindiko Salmenta arduraduna; Amado Garcia, inprimategikoa.

— L. Villasante Euskaltzainburuak egiten ditu sarrera hitzak. Liburu berriaren xehetasunak aipatu ditu hitzaldi ondo landutakoan, hasieratik Pierre Broussain nor izan zen azaltzen: Hazparneko alkate edo auzapeza hamabost urtetan, mediku eta euskaltzale. R. M.^a Azkue apaiz lekeitiarrarekin Donibane Lohitzungo Euskal Festetan gazterik elkar ezagutu eta honen laguntzaile handia egin zen, bizkaitarrak argitaratu zuen Euskal Hiztegirako iturri baliotsu izanez, baita geroago Esiskaltzaindia sortzeko asmoari ekinez.

— J. M.^a Makua Diputatu Nagusiak bere agurra egiten du.

— P. Charritonek, jarraian, egiten du liburuaren aurkezpena. Trebisehek 1913an Broussaini grabaturiko ahotsa entzun izan ahal duela adierazi du. Ondoren, hainbat zehaztasun azaldu ditu paratzaileak liburutik landa direnez. P. Charritonek, ondoren, hitzaldi bizigarriaz (herrikide batetaz hitz egiterakoan nola ez) urte haietako giroa zehaztu du, baita liburuaren sorrera eta orduko kezka ere. Badiugu gure historian ondasun handiak, eta gure mendekoen eginkizuna, batez ere gazteei begira, gai horiek azaltzea da.

— Jenofa le Roy, P. Broussainen alabak zenbait oroimen aipatzen ditu.

— Azkenik, Tomas Uribeetxebarria kultur Diputatuak, ematen dio amaiera.